



3. JENTILBARATZA

JENTILAK ZELATAN


3. IBILBIDE MITOLOGIKOA

ALTUERA MIN.:	156 m.
ALTUERA MAX.:	253 m.
DESNIBELA:	▼ 105 m. ▲ 130 m.
DISTANTZIA:	2,73 km.
DENBORA:	1 ordu
ZAILTASUNA:	erreza



3. JENTILBARATZA

➤➤ SAN MARTINGO PLAZA ~ MENDIOLAKO GAINA ~ AGERRE BASERRIA ~ SAN MARTINGO PLAZA



Aparkalekua	Eskailerak	Lepoa	Iturria	Amaiera
Hasiera puntua	Bidegurutzea	Argi zutabea	Baserrria/etxea	(Speaker icon)

TOPOGIDA

P. **Aparkalekua.** San Martingo plazan utziko dugu autoa.

1. **Hasiera-puntua.** Plazan bertan hasiko dugu ibilbidea, bertatik bistan baitira eliza eta Zaindegi etxea. Hemendik, udaletxearen ezker aldetik, errotaren gorpila dagoen bidetik, eta Aizkorretaenea artean gora doan bidetik goiko errepidera irten eta ezkerrera egingo dugu. **ENTZUN: Zaindegiko atsoaren esaunda**

2. **Ezkerrera.** Etxe eta baserriak atzean utzi eta errepidea jarraituko dugu ezkerretik, hilerria eskuinean utziz.

3. **Bihurgunea.** Bihurgunean errepidea utzi eta Mendiolako argi-zutabera bertaratuko gara.

4. **Argi-zutabea.** Mendiolako gainean gaude, argi-zutabea dagoen gainean. Jentilbaratza eta Jentilseitateondakoarrie ditugu parez pare. Hemendik hego mendebaldera jaitsiko gara hilerriko sarrerara. **ENTZUN: Jentil arroaren arazoak**

5. **Eskailetrak.** Hauek jaitsiz eta gurutze-bidetik bidea eginez Paskualiturrira aterako gara.

6. **Paskualiturrri.** Ur freskoa dastatu ondoren errepide nagusia ezkerrera hartuko dugu, bertatik metro gutxi egiteko.

7. **Bidea.** Ezkerreko bidea hartuko dugu errepidea utziz eta Kortaberri eta Gurutzeagaberri etxeen artean igaroz Aldabeko zeharrean barneratuko gara.

8. **Aldabeko zeharra.** Gurutzeaga baserritik datorren bidea eskuinerantz hartuko dugu zuhaitz artean.

9. **Errepidea.** Aldabeko zeharra amaitzean errepidea hartuko dugu eskuinaldera jaitsiz.

10. **Arrateta.** Arrateta etxearen parean errepidea hartuko dugu ezkerretara. Bertatik, harrobia bistaratu dezakegu.

11. **Harrobia.** Errepidean jarraituz metro batzuk aurrerago eskuinera gora egingo dugu Agerre baserrira igotzeko.

12. **Agerre.** Hemen Agerreaundi eta Agerretxiki bereiz daitezke, Agerreaundiko ganbarara zuzen kablea sartzen delarik. Bidea jarraitzeko bi baserrien artean igaro beharko gara. Hemen hasiko dugu behera bidea. **ENTZUN: Urrezko izara eta Agerreko madarikazioa**

13. **Arkaizpe.** Etxea igaro ondoren, berehala errepidea utziz eskuinaldera sartzen den bidezidorra jarraituko dugu.

14. **Errepidea.** Indarretxe eta Irubide etxeen artean aterako gara errepidera, ezkerrera eginez.

15. **Iztator.** Errepide nagusira ateratzen den bidegurutze honetan, eskuinaldera eginez errepidea gurutzatu eta zubia igaroko dugu, otso-oinatzak jarraituz erreka ondotik plazara itzultzeko.

=1. **Amaiera-puntua.** Jolastokia igarota berehala helduko gara elizaren itzalean dagoen San Martingo plazara.

GUNE INTERESGARRIAK



SAN MARTINGO PLAZA

Toursko San Martingo eliza bere erretaula eta organo ikusgarriarekin, eta udaletxea ere bertan kokatzen dira. Udaletxeko sarreran Aitor Mendizabal eskulturagileak Joxemiel Barandiaranen omenez eginiko irudi multzoa dago ikusgai.



JENTILBARATZA

Jentilbaratza, izatez Artxabaletako gaina, XI-XV mende artean Nafar eta Gaztelarren arteko gatazkan garrantzi handikoa izan zen gazteluaren kokagune izanagatik eta hau baino lehenago jentilen bizitoki edo ehorzketa leku izanagatik da entzutetsua. Oraindik zutik dirau gazteluaren horma batek, eta bertakoan gogoan diraute ere leku honen inguruan diren hainbat esaundak.



KABLEA

Agerreaundi baserriaren atarian KABLEA dago ikusgai. Belarra nahiz egurra zelai aldapatsuetatik garraiatzeko tramankulua. Ataunen badira 197 kable katalogaturik, hau delarik horietako bat.